

17. ORDENANTZA FISKALA, SAN JOSE EGOITZAKO EGONALDIAK ARAUTZEN DITUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak San Jose egoitzako zerbitzuak emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. ARTIKULUA

Udal Administrazioak, norbanakoen eskariei erantzunez, zenbait zerbitzu ematea edota jarduerak burutzea da zergapeko egitateak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasa honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 34. eta 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, aipatutako zerbitzuak eskatuz gero, edota zerbitzuen onuradun edo zerbitzuak ukitutakoak izanez gero.

5. ARTIKULUA

Tasak ordaindu beharra izango dute San Jose egoitzako zerbitzuak edo instalazioak erabiltzen dituztenek.

Ordainketa egoiliarrek berak edo haren legezko ordezkioak egingo du. Era berean, egoitzari tasak borondatez ordaindu behar dituzten pertsonak ordainketa hori egiteko betebeharra izango dute.

IV. ZERGA OINARRIA

6. ARTIKULUA

Zerbitzua gauzatzeko unitate bakoitza da zerga-oinarria, tarifan azaldutakoaren arabera.

V. KUOTA

7. ARTIKULUA

Zerga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuz finkatuko da kuota.

VI. SORTZAPENA

8. ARTIKULUA

Zerbitzua edo jarduera egiten den unean sortzen da tasa, hau da, eskatzailea San Jose egoitzan sartzen denean.

VII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. ARTIKULUA

Hileko lehen astean egingo dira Eranskinean azaldutako zerbitzuei dagozkien likidazioak eta tasen ordainketak.

VIII. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

Ordenantza fiskal honen osagarri izango da egoitzaren barne-araudia.

IX. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2018ko apirilaren 26an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2019ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

TARIFAK

Plaza bakoitzeko guztira ordaindu beharrekoa:

- A) 1 graduko egoiliarra75,00 €/eguneko
B) 2 eta 3 graduko egoiliarra85,50 €/eguneko

Foru Aldundiak bere araudietan xedatua bete behar dute San Jose egoitzako egonaldien kostuari aurre egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren banakako diru-laguntza jasotzen duten egoiliarrek.

Goian adierazitako tarifa horiek Bizkaiko Foru Aldundiak onartuko dituenetara egokituko dira.